

## UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Borja Sémpér Pascual Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Donostiako disuasio-aparkalekuak sustatzeko neurriei buruz, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Aurreikuspenarekin eta helburu argi batekin jardun nahi izanez gero, Udalak, momentu honetatik bertatik hasita, jarduera multzo bat izan beharko luke prest hainbat helburu lortzeko, idatzi honetan proposatzen duguna kasu: hiriaren erdialdean ibilgailuen zirkulazioa murriztea, eta, hala, ingurumenaren kalitatea hobetzea.

Kontua da Donostiako hiriak erronka handiei aurre egin beharko diela datozen lau urteotan, Euskotrenbideak-en metroa abian jarriko baita, eta horrek oso iraultza handia ekarriko baitio gure hiriaren mugikortasunari. Kalkuluen arabera, 21 milioi erabiltzaile izango dira urtean, eta maiztasuna 7 minutukoa izango da.

Gainera, azpiegitura horrek aukera emango du hiriko gune garrantzitsu batzuk oinezkoentzat jartzeko. Hala, Antso Jakitunaren eta Easoko geltokiaren artean dagoen espazioa bulebar bihurtuko da (gaur egun, Euskotrenbideak-en bideek okupatzen dute).

Beraz, metroak, bizikletak eta ibilgailuei hiriaren erdialdera sartzeko mugak jartzeak itxura berria emango diote hiriari, eta, aldi berean, ingurumenaren kalitatea hobetzen lagunduko dute.

Hori guztia egin ahal izateko –ibilgailu pribatuei hiriaren erdialdera sartzeko mugak ezartzea nahiz garraio publikoa eta autoa ez beste garraiobide batzuk erabiltzea–, ezinbestekoa da aurreikuspenaz, epeak kontuan hartuz eta aurreikuspen ekonomikoaz jardutea, hiriko eremu

estrategikoetan edukiera handiko disuasio-aparkalekuak jartzeko, garraiobide publikoekin gertuko konexioak dituztenak.

Gobernu Taldeak Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean adierazitako zalantzak ikusita, Talde Popularrak honako kontrol mozio hau aurkeztu du:

#### KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gauzatze-plan bat taxutzeko, Donostiako gune estrategikoetan disuasio-aparkalekuak egiteko aurreikuspen nahikoa izango duena, kontuan hartuta laster Euskotrenbideak-en metroa martxan jarriko dela eta gure ingurunearen ingurumena hobetu behar dela.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gutxienez, bi disuasio-aparkaleku handi eraikitzeko, edukiera handikoak, txandakatzeko diseinatuak, Topo eta Donostibus-eko geltokiekin konektatuak, eta DBIZI geltokien ondoan daudenak, hiriko mugikortasun-karga arintzeko eta etorkizunean kale edo eremu gehiago oinezkoentzat jarri daitezkeen aztertu ahal izateko.

Donostia, 2019ko urriaren 16a



Borja Sémpér Pascual

Partido Popular udal taldeko bozeramailea